

HIRI LURREN BALIO HANDITZEAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

I.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Udalak ordenantza honen arabera eskatuko du Hiri-lurren balio-handitzearen gaineko zerga, Lurren Historikoko Tokiko Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta zerga honi buruzko foru-arauan aurreikusitakoarekin bat etorritik. Ezarri beharreko portzentajeak eta tarifak jasotzen dituen eranskina ere ordenantzaren zati da.

2. artikulua

Ordenantza udalerrri osoan ezarriko da.

II. ZERGAPEKO EGITATEA

3. artikulua

1. Hauxe izango da zergapeko egitateak: hiriko lursailek zerga-aldian izandako balio-hazkundera, jabetza edozein tituluren bidez eskualdatzen denean edo horien gainean jabaria mugatzen duen gozameneko edozein eskubide erreal eratzten edo igortzen denean.

2. Zerga honen ondoreetarako, hauexek dira hiri-ondasun higiezinak:

1. Hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri gisa sailkatutako lurra, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean eta berori garatzeko araudian ezarritakoaren arabera.

Halaber, hiri-ondasun higiezinak joko dira nekazaritza-legeetan xedatutakoaren aurka zatikatutako lurrak, zatikapenak lurrak nekazaritzarako erabiltzea eragozten badu, eta horrek lurren landa-izaeraren inolako aldaketarik ez badakar zerga honetakoak ez diren beste ondorio batzuetarako.

2. Hiri-eraikuntzak, holakotzat honako hauek hartuta:

a) Eraikinak, edozein izanda egiteko erabili den materiala, hartzen duten tokia eta lurzoru-mota, eta ematen zaion erabilera, nahiz eta eraikitze eragatik guztiz eramangarriak izan, eta nahiz eta hartzen duten lurra ez izan eraikuntzaren jabearena; halaber, eraikin horien parekoak diren merkataritza- eta industria-instalazioak; adibidez, dikeak, tankeak eta zamatze-tokiak.

b) Hiritartze- eta hobekuntza-obra, esaterako, lur-berdinketak eta aterperik gabeko guneak erabiltzeko egiten direnak. Hain zuzen ere, hauek hartuko dira horrelakotzat: azoka lege erabiltzeko barrunbeak, aire zabaleko gordailuak; presak, ur-jauziak eta

urtegiak, are ohea ere; kiroletan jarduteko zelai edo instalazioak, kaiak, aparkalekuak eta eraikuntzei erantsitako ondoko guneak.

3. Ondoko artikuluan landa-izaerako eraikuntza gisa berariaz kalifikatuta ez dauden gainerako eraikuntzak.

III. MENPE EZ EGOTEA

4. artikulua

1. Landa-lurtzat jotzen diren lurren balioa handitzeagatik ez da honako zerga hau ordaintzen.

2. Zerga honen ondoreetarako, landa izaerako ondasun higiezinak joko dira hiri-lurtzat jotzen ez diren lurak, aurreko artikuluko 2. zenbakian xedatutakoarekin bat, kontuan hartu gabe Katastroan edo OHZren Erroldan halakotzat jasota dauden edo ez.

3. Honako hauek ez dira zergaren pean egongo: ezkontideei ezkontza-sozietateari egindako ondasun- eta eskubide-ekarpenak, horien ordainetan beraien alde egiten diren esleipenak, eta ezkontideei beren ondasun komunak ordainetan egiten zaizkien eskualdaketak.

Halaber, ezkontza deuseztatuz edo senar-emazteak bananduz edo dibortziaz gero, horretaz emandako epaia betearazteko ezkontide batek besteari ondasun higiezinak eskualdatzen badizkio edo ezkontideek euren seme-alabei eskualdatzen badizkie, eragiketa ez dago Zergaren kargapean, ezkontzaren araubide ekonomikoa edozein izanda ere.

Gauza bera aplikatuko zaie, aurreko paragrafoetan aipatu balizkoen arabera, Izatezko Bikoteak arautzen dituen maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat etorritik osatutako izatezko bikoteko kideek egiten dituzten ekarpenak, adjudikazio eta eskualdaketei.

IV. SALBUESPENAK

5. artikulua

1. Zerga honetatik libre daude ondoko egintzen ondorioz azaltzen diren balio-handitzeak:

a) Zortasun-eskubideak eratzea eta eskualdatzea.

b) Multzo historiko-artistikoaren barnean dauden ondasunak eskualdatu direlako, edota ondasunak banan bana kultura-interesekotzat jo direlako (Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legean ezarritakoaren arabera edo Euskal Herriko Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legean ezarritakoaren arabera), ondasun higiezin horien jabeek edo eskubide errealeen titularrek higiezinak

mantentzeko, hobetzeko edo birgaitzeko obrak eurek ordaindu dituztela egiaztatzen dutenean.

Horretarako, jabeek egiaztatu behar dute aipatutako higiezinetan bere kontura egin eta ordaindu dituela mantentze-, hobetze- eta birgaitze-obrak higiezinaren balio katastrala kontsumo-prezioen indizearen arabera eguneratutako obren zenbatekoa baino txikiagoa bada, Eraikuntzen eta Obren zergarako.

Atal honetan aurreikusitako xedeetarako salbuesteko eskabidea egiteko, ondorengo agiriak hartu behar dira aintzat:

1. Zergaren xede diren eskualdatutako ondasunak multzo historiko-artistikoaren barnean daudela edo bakarka kultur intereseko eraikintzat jo direla egiaztatzen duten agiriak.

2. Obren edo egikaritzapen-aginduaren hirigintza-lizentzia.

3. Izapidetutako obra-lizentziaren tasaren ordainketa-gutuna.

4. Obra-bukaerako ziurtagiria.

2. Halaber, balio-handitzeak zerga honetatik libre daude, zerga ordaindu behar dutenak ondoko pertsonak edo erakundeak direnean:

a) Estatuak, Euskal Autonomia Erkidegoa, Bizkaiko Lurralde Historikoa, udalerriri dagozkion tokiko erakundeak, erakunde autonomoak eta Autonomia Erkidegoko eta aipatutako tokiko erakundeen eskubide publikoa duten antzeko erakundeak.

b) Zerga aplikatu den udalerrira eta bertako tokiko erakunde guztiak, bai eta horietan ari diren organismo autonomoen antzeko zuzenbide publikoko erakunde guztiak ere.

c) Ongintzako edo irakaskuntza eta ongintzako izendatutako erakundeak.

d) Gizarte Segurantzaren eta indarrean dagoen legeriaren arabera eraturik dauden mutualitateen eta montepioen kudeaketa-erakundeak.

e) Nazioarteko itunen edo hitzarmenen arabera salbuetsita dauden pertsonak edo erakundeak.

f) Administrazio-emakiden titularrak, baldin eta emakida horiek eragindako lursailei berriro aplikatzerik badago.

g) Gurutze Gorriaren eta antzeko erakundeen ondasunak. Arautegian zehaztuko da zein diren horiek.

h) Irabazteko asmorik gabeko erakundeak.

Lursailak eskualdatzeari edo lursailen jabaria mugatzeko gozameneko eskubide errealak eratzeari dagokionez, jarduketa horiek irabazteko xederik gabeko erakunde batek kostuaren bidez egin baditu, zerga hori ordaintzetik salbuesteko, lursailek bete egin beharko dituzte ondasun higiezinaren gaineko zergatik salbuetsi ahal izateko ezarritako baldintzak.

Salbuespen hau aplikatzeko irabazteko asmorik gabeko erakundeek Udalarari jakinarazi beharko diote otsailaren 24ko 1/2004 Foru Arauaren 16. artikuluko 1. atalean araututako aukera erabili dutela, eta Foru Arau horren II. Tituluan jasotako zerga-erregimen bereziari buruzko baldintzak bete beharko ditu.

3. Zerga biltzeko kudeaketaren eraginkortasun- eta ekonomia-irizpideak direla eta, bertatik salbuetsita geratuko dira adierazitako balio-handitzea 6 euro baino gutxiagokoa denean.

V. ZERGAPEKOAK

6. artikulua

1. Zergaren subjektu pasiboa da zergadun gisa:

a) Lurren eskualdaketetan edo jabaria mugatzen duten irabazizko gozameneko ondasun-eskubideak eratu edo eskualdatzean, lurra eskuratzen dituen pertsona fisikoa edo juridikoa, edo Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 34.3. artikulua aipatzen duen erakundea edo ondasun-eskubidea beronen alde eratua duena edo eskualdaketaren jasotzaile dena.

b) Lurren eskualdaketetan edo jabaria mugatzen duten kostuaren bidezko gozameneko ondasun-eskubideak eratu edo eskualdatzean, lurra eskualdatzen dituen pertsona fisikoa edo juridikoa, edo Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 34.3. artikulua aipatzen duen erakundea edo ondasun-eskubidea beronen alde eratua duena edo eskualdaketaren jasotzaile dena.

2. Aurreko ataleko b) letrak aipatzen dituen kasuetan, baldin eta zergaduna Espainiatik kanpo bizi den pertsona fisiko bat bada, lurra eskuratzen dituen pertsona fisikoa edo juridikoa, edo Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 34.3. artikulua aipatzen duen erakundea edo ondasun-eskubidea beronen alde eratua duena edo eskualdaketaren jasotzaile dena joko da zergadunaren ordezkotzat.

3. Ohiko etxebizitzaren gaineko hipoteka exekutatzearen ondorioz gertatzen diren lursailen eskualdaketetan, lurra eskuratzen duen pertsona fisikoa edo juridikoa, edo Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 34.3. artikuluan aipatutako erakundea izango da zergadunaren ordezkotzat.

Aurreko paragrafoan zehazten den kasuan, ordezkotzat ezingo dio zergadunari exijitu ordezkotzat berak ordaindutako zerga-betebeharraren zenbatekoa.

Atal honetan zehazten denerako, ohiko etxebizitza izango da, hain zuzen ere, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauko 89. artikulua 8. atalean hala definitutakoa.”

2. Aurreko ataleko b) letrak aipatzen dituen kasuetan, baldin eta zergaduna Espainiatik kanpo bizi den pertsona fisiko bat bada, lurrak eskuratzen dituen pertsona fisiko edo juridikoa, edo Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 34. artikulua aipatzen duen erakundea edo ondasun-eskubidea beronen alde eratua duena, edo eskualdaketaren jasotzaile dena joko da zergadunaren ordezkotzat.

VI. ZERGA OINARRIA

7. artikulua

1. Hiri-lurren benetako balio-handitzeak (sortzen den egunetik aurrera 20 urteko gehieneko denboraldian) osatuko du zerga honen oinarria.

2. Handitzea egiazki zenbatekoa den zehazteko, zerga sortzen denean Ordenantza honen 8. artikuluan xedatutakoa aplikatuta lursailak duen balioari eskala honen bidez lortutako eskalako portzentajea aplikatuko zaio:

- a) Bat eta bost urte bitarteko aldia.....3,7.
- b) Hamar urtera arteko aldia.....3,5.
- c) Hamabost urtera arteko aldia3,2.
- d) Hogei urtera arteko aldia3,0.

3. Portzentajea zehazteko honako arau hauek aplikatuko dira:

Lehenengoa. - Zergaren menpeko eragiketa bakoitzaren balio-handitzea Udalak ezarritako urteko portzentajearen arabera zehaztuko da, aipatutako balio-handitzea agerian egon den urteetarako prestatzen dela esan beharra dago.

Bigarrena. - Sortzapen-egunean lurrak duen balioaren gainean aplikatu beharreko portzentajea, kasu jakin bakoitzari aplikatu ahal zaion urteko portzentajea eta balioaren gehikuntza agerian jarri izan deneko urte kopuruaz biderkatutako emaitza izango da.

Hirugarrena. - Lehenengo erregelaren arabera eragiketa jakin bakoitzari aplikagarri zaion urteko portzentajea zehazteko, eta bigarren erregelaren arabera aipatu urteko portzentajea zein urte kopuruz biderkatu behar den zehazteko, balioaren gehikuntza agerian jarri zeneko aldia osatzen duten urtebeteak bakarrik hartuko dira kontuan, eta ondorio horietarako aipatu aldiaren urte zatikiak izan izango dira kontuan hartu.

8. artikulua

Oinarri ezargarria kalkulatzeko, lurrek sortzapen-unean izan duten balioa erregela hauen bitartez kalkulatu da:

a) Lur-eskualdaketetan, lurren balioa Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondoretarako finkatutakoa izango da.

b) Jabaria mugatzen duten ondasunen gaineko eduki-eskubideak eratzen eta eskualdatzen direnean, urteko portzentajeak, 7.2 artikuluan adierazi direnak, aurreko letran definitu den balioaren eta eskubideek, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren ondoretarako finkatuta dauden arauak ezarri, duten balioaren arteko diferentziari aplikatu zaizkio.

c) Eraikin edo lur batean solairu bat edo gehiago eraikitzeko eskubidea eratzen edo eskualdatzen denean, edo zorupean eraikitzeko eskubidea, azalaren gaineko ondasun-eskubiderik ez eduki arren, 7. artikularen 2. idatz-zatian aipatutako urteko portzentajeak a) letran finkaturiko balioaren zatiari aplikatuko zaizkio, eta balioari eskualdaketa-eskrituran finkaturiko proportzotasun-modulua aplikaturik sortzen den balioari edo, horren ezean, hegalduan edo zorupean eraikiko den azalera edo bolumenaren eta guztirako azalera edo bolumenaren arteko proportzioa aplikaturik sortzen denari.

d) Derrigorrezko desjabetzapenetan, urteko portzentajeen 7. artikularen 2. idatz-zatian ageri dena, balio justuaren zati bati aplikatuko zaio, hain zuzen ere, lurren balioari dagokion zatiari balio a) letran aurreikusitakoa baino txikiagoa denean izan ezik, kasu horretan azken hori izango baita.

VII. ZERGA KUOTA

9. artikulua

Zerga honen kuota zerga-oinarriari honako karga-tasa hau aplikatuta lortuko da, zerga-oinarria zehazteko jarraitutako sistemaren arabera:

- Karga-tasa % 6koa izango da, zerga-oinarria zehazten bada gutxieneko balio egozgarria zehazteko araubidez ezarritako arau teknikoak aplikatuta lortutako lurzorua balio errealaren bidez. (8. artikularen a) atala).

10. artikulua

Lursailak eskualdatzean eta jabaria mugatzen duten gozatzeko eskubide errealak eskualdatu edota eratzen direnean, heriotzaren ondorioz doan eginak badira, % 50eko hoberia aplikatuko da zergaren kuotan, eskuratzen duena ezkontidea edota maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratutako izatezko bikotea denean, ondorengoak edota adoptatuak eta aurrekoak edo eragilearen adopzio-egileak badira.

Eskuratutako ondasuna ohiko etxebizitza bada, hoberia % 95ekoa izango da.

Eragilearen ohiko etxebizitzat joko da heriotzaren unean erroldan agertzen dena.

VIII. SORTZAPENA

11. artikulua

1. Zergaren sortzapena honako kasu hauetan gertatuko da:

a) Lurraren jabetza eskualdatzen denean, kostuaren bidez zein dohainik, bizien artean edo heriotzaren ondorioz. Sortzapena eskualdaketa-egunean gertatuko da.

b) Jabaria mugatzen duen eduki-eskubide errealean bat eratzen edo eskualdatzen denean. Sortzapena eraketa- edo eskualdaketa-egunean gertatuko da.

Arestian adierazi denaren ondoreetarako, transmisioaren datatzat honako hau hartuko da:

a) Bizien arteko egintzetan edo kontratuetan, agiri publikoa ematen denekoa, eta, dokumentu pribatuak direnean, horiek erregistro publikoan inskribatzen direnekoa edo lanbidearen zioz funtzionario publiko batek ematen dituenekoa.

b) Heriotza-ziozko eskualdaketatik, eragilearen heriotza-data.

2. Baldin eta, epai edo administrazio-ebazpen irmo baten bidez, lurren eskualdaketa edo lurra edukitzeko eskubide erreala eragiten duen egintza edo kontratua deuseztaturik, hutsaldurik edo suntsiturik dagoela adierazten edo aitortzen bada, subjektu pasiboak aurretik ordaindutako zerga bueltan jasotzeko eskubidea izango du, betiere egintza edo kontratu hori irabazteko ondorerik gabekoa bada eta zerga itzultzeko eskaera ebazpen irmoa ematen denetik hiru urte igaro baino lehen egiten bada. Interesatuak elkarri Kode Zibilaren 1.295. artikuluko itzulketak egin beharra dutela justifikatu ezean, irabazteko asmoak daudela ulertuko da. Egintzak edo kontratuak irabazirik ekartzen ez badu ere, deuseztapena edo amaiera zergaren subjektu pasiboak bete beharrekoak bete ez dituelako deklaritzen bada, ez da ezertxo ere itzuliko..

3. Kontratuaren bi alderdiek hala hitzarturik kontratua bertan behera geratzen bada, ordaindutako zerga ez da itzuliko, eta zergapeko egintza berriztat joko da. Elkarren adostasuntzat hartuko dira bai adiskidetze ekitaldiko abenikoa, bai eskariari amore-emate hutsa ere.

4. Egintzek edo kontratuak baldintzaren bat dutenean, Kode Zibileko preskripzioen arabera kalifikatuko dira. Baldintza etengarria bada, zerga ez da likidatuko hura bete arte. Baldintza erabakigarria bada, zerga erreserba gisa eskatuko da baldintza betetzen denean, behar den itzulketa aurreko ataleko arauari jarraituz eginez gero.

5. Alkar-poderoso edo testamentua egiteko ahalaren bidezko jaraunspenetan, Zergaren sortzapena ahala modu ezeztazinean erabiltzen denean edo hura iraungitzeko karietariko bat gertatzen denean gertatuko da.

Alkar-poderosoan edo testamentu egiteko ahalean norbaiti zerga honen pean dauden jaraunspeneko ondasunen gozamina edukitzeko eskubidea ematen bazaio, ahala erabiltzen ez den artean gozamenaren likidazio bi egingo dira: bata, behin-behinekoa, oinordetza hastean sortzapena izango duena, biziarteko gozamenari buruzko arauen pean; eta, bestea, behin betikoa, alkar-poderoso edo testamentu egiteko ahala erabiltzen denean, aldi baterako gozamenaren arauen pean, eragilearen heriotzatik igarotako denboraren arabera. Behin-behineko likidazioagatik ordainduko dena konturako sarreratzat konputatuko da eta diferentzia gozamendunari bihurtuko zaio, bidezkoa bada. Aldi baterako gozamenaren ziozko behin betiko likidazioa eta alkar-poderoso edo testamentu egiteko ahala erabiltzeagatik edo berau iraungitzeko gainerako kariengatik jaraunsle direnen likidazioa aldi berean egingo dira.

IX. KUDEAKETA

12. artikulua

Subjektu pasiboek zerga-aitorpena aurkeztu beharko diote Udal Administrazioari, berak emandako eredu ofizialari jarraituz. Eredu ofizial horretan zergaren elementuek eta kuota zehazteko beharrezko eta ezinbesteko diren gainerako datu guztiek egon beharko dute.

13. artikulua

Aitorpena honako epe hauetan aurkeztuko da, zerga sortzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita:

- a) Bizidunen arteko egintzak direnean, epea 30 egun baliodunekoa izango da.
- b) Heriotzagatik bideratutako egintzak direnean, epea urtebetekoa izango da.

14. artikulua

1. Aitorpenarekin batera, ezarpena eragin duten egintzak edo kontratuak zehazki azaltzen dituen agiri kautoa aurkeztu behar da.

2. Eskatutako salbuespenak edo hobariak egoki justifikatu beharko dira, agirien bidez.

15. artikulua

Zerga likidatzeko beharrezkotzat jotzen dituen bestelako agiriak hogeita hamar eguneko epean aurkezteko eskatu ahal izango die Amurrioko Udalak interesdunei-Interesdunak eskatuz gero, beste hamabost egunez luza daiteke epea. Egindako eskaerei epe horien barruan erantzuten ez dietenek, dagozkien zergen alorreko arau-hauste eta zehapenak izango dituzte, aipatutako agiriak aitorpena egiaztatzeko

beharrezkoak diren neurrian. Agiri horiek interesatuak bere onurarako besterik alegatu ez dituen inguruabarrak frogatzeko tresnak badira eta errekerimendua betetzen ez bada, alegatu baina justifikatu ez diren zirkunstantziak kontuan hartu gabe egingo da likidazioa.

16. artikulua

12. artikuluan xedatutakoa alde batera utzita, honako hauek ere subjektu pasiboentzat jarritako epe beretan emango diote zerga-gaiaren berri Udal Administrazioari:

a) Ordenantza fiskal honetako 6. artikulua a) letran jasotako egoeretan, bizien arteko negozio juridikoen kasuan, eskubide erreala osatu edo eskualdatzen duen emaile edo pertsona.

b) Aipatutako 6. artikulua b) idatzi zatian jasotako egoeretan, eskuratzailerak edo eskubide erreala eratu edo eskualdatzen zaion pertsona.

17. artikulua

Halaber, notarioek, hiruhileko natural bakoitzaren lehenengo hamabostaldian, aurreko hiruhilekoan baimendu dituzten dokumentu publiko eta pribatuen zerrenda aurkeztu behar dute Udal Administrazioan, Ekonomia eta Ogasun Sailean. Zerrenda horietan azaldu behar dituzte parte-hartzaileen izen-abizenak, nortasun-agiria eta helbideak, batetik, eta zergapeko egitatea burutu dela agerian jartzen duten gertakari, ekintza edo negozio juridikoak, bestetik, azken borondatezko egintzak izan ezik. Era berean, sinadurak aintzatesteko edo legeztatzeko aurkeztu dizkieten egitate, egintza edo negozio juridikoei buruzko agiri pribatuen zerrenda igorri behar dute epe beraren barruan. Atal honetan ezarritakoa gorabehera, Lurralde Historikoko Zerga Arau Orokorrean lankidetzarako ezarri den eginbehar orokorra bete behar da

18. artikulua

1. Udal Administrazioak aitortu ez diren zerga-oinarrien egintzaren jakinaren gainean dagoenean, 13. artikuluan aipatzen diren epeen barruan, interesatuei agindeia egingo die, aipatutako aitorpena egin dezaten, tributu-urratzeak eta, halakorik balego, dagozkien zehapenak gorabehera.

2. Udal Administrazioak aipatutako errekerimenduak eginez gero ere, interesdunek dagozkien aitorpena aurkezten ez badute, ofiziozko espedientea bideratuko da, eskueran dituzten datuez baliatuz, eta dagozkien likidazioa egingo da, ordaintzeko epeak eta bidezko errekurtsioak adierazita. Hala balegokio; gainera, zerga-alorreko arau-hausterik balego eta bidezkoa balitz, dagozkion zehapenak ezarriko lirateke.

X. XEDAPEN GEHIGARRIA

9.1. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, eta Ondarezko Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen Gaineko Zerga onartzen duen Foru Araua indarrean dagoen bitartean, honako hauek bete beharko dira:

LEHENENGOA.

- a) Aldi baterako gozamenaren balioa, ondasunen balioen proportzionaltzat joko da, urtebete bakoitzeko % 2ren proportzioan, % 70etik gora jo gabe.
- b) Biziarako gozamenaren balioa ondasunen balio osoaren % 70ekoa dela joko da, gozamenaren hogaie urte baino gutxiago baditu. Zenbat eta zaharragoa izan, orduan eta txikiagoa izango da balioa, hain zuzen ere, % 1 gutxiago urte bakoitzeko. Muga, betiere, balio osoaren % 10ekoa izango da.
- c) Beste pertsona juridiko baten alde ezarritako gozamenak 30 urtetik gora edo denbora-epe mugagabe batez irauten badu, baldintza baliogabetzaileari lotutako jabetza osatu baten eskualdaketatzat joko da zergen aldetik.

BIGARRENA.

Jabetza soilaren eskubidearen balioa gozamenaren eta ondasunen balio osoaren artean kenketa eginez kalkulatu da. Aldi baterakoak diren bizitza osorako gozamenetan jabetza hutsa lehenengo puntuko arauetatik balio gutxien ematen diona aplikatuz kalkulatu da.

HIRUGARRENA.

Erabiltzeko eta bertan bizitzeko eskubide errealeen balioa, eskubide horiek jasotako ondasunen balioaren % 75ari, kasuan kasu, aldi baterako edo bizitza osorako gozamenaren balorazioaren Gainerako arauak aplikatuz lortuko da.

XI. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau Udalbatza Osoak 2018ko urriaren 23an egindako bilkuran hartutako erabakiaren bidez aldatu da, 2019ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean eta hala jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte. Ordenantza Fiskal honen aldaketa partziala eginez gero, aldatu gabeko artikuluek indarrean jarraituko dute.

Aurrekontuen Foru Arauetarako edo zuzenean aplikatu beharreko beste edozein arau edo xedapenerako ezarritako tasaren araudian gaineratutako aldaketek Ordenantza Fiskal honi dagokion isilbidezko aldaketa eragingo dute.